



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

73. INFORMAZIO BULETINA

> 2012ko Abendua



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

- > Erresuma Batua, Frantzia eta Italiarekin batera, Europako demokrazia ekonomikoa hobetzeko lantaldearen buru da Gipuzkoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Berrikuntza, Nekazaritza Garapen eta Turismo Departamentuaren bidez eta Erresuma Batua, Italia eta Frantziako gobernuekin batera, lantaldea osatu du Europako Batzordearen laguntzarekin, elkarriketa soziala bultzatzeko xedearekin, Europa 2020 strategiaren testuinguruan demokrazia ekonomikoa hobetze aldera; hau da, Europar Batasunaren hazkunde-estrategiaren testuinguruan.

Hala, lau gobernu horiek demokrazia ekonomikoaren alorrean jardunbide egoki gisa hartzen diren politikak ezarri dituztela aitortzen du Europar Batasunak. Gipuzkoan, zehazki, erakundeak langileek enpresan parte har dezaten erakundeak emandako bultzada aitortu dute.

Lantalde horren ondorioak apirilean azalduko dituzte, Donostian antolatutako jardunaldietan, eta han izango dira Europa guztiko eragile ekonomiko, sozial eta administrazioak. Jardunaldi horietan langileek enpresan parte har dezaten Europako estrategia berria ezagutaraziko dute.

Informazio gehiago:

<http://www.gipuzkoaberri.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/es/481/diputacion-gipuzkoa-lidera-junto-reino-unido-francia-e-italia-un-grupo-para-mejorar-democracia-economica-europa>

- > Indarrean da Euroguneko aurrekontuen orekarako Europako Hitzarmen Fiskala

Urte hasieran “Europako Hitzarmen Fiskala” izenarekin ere ezaguna den egonkortasunari, koordinazioari eta gobernantzari buruzko hitzarmena indarrean jarri zen Batasun Ekonomiko eta Monetarioan. Hitzarmen horrek Euroguneko diziplina fiskala indartu nahi du, aurrekontuen orekarako hainbat arau eta zuzenketa automatikorako mekanismoa ezarrita.

Nazioarteko zuzenbidearen arabera loteslea den baliabide hori Euroguneko iraunkortasun fiskala indartzeko eta kide diren herrialdeetako zor subiranoari buruzko tentsioak murrizteko xedearekin sortu zen.

Une honetatik aurrera, hitzarmena sinatu duten herrialdeek urtebete izango dute zuzenbide nazionalen aurrekontu-diziplinarako baldintzak eta aurrekontuen zuzenketa automatikorako mekanismoa txertatzeko.

Informazio gehiago:

<http://www.eurozone.europa.eu/treaty-on-stability>



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2012ko Abendua

> Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko kutsadura eta ingurumenarekiko inpaktua murriztearen aldeko apustua egin du motorrik gabeko mugikortasunaren bidez

"Estrategia Empresarial" aldizkariko artikulu baten (438. zk., 2013ko urtarrilak 1) arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak apustu irmoa egin du iraunkortasunean oinarritutako mugikortasun-eredu baten alde, horren bidez Gipuzkoako kutsadura eta ingurumenarekiko inpaktua murrizteko.

Horrekin lotuta, **Gipuzkoako bidegorrien sarea** ekimena Euskal Autonomia Erkidegoko PO FEDER 2007-2013ren 3. ardatzaren "Bidegorriak" lehentasunezko ildoan sartu du foru-erakundeak.

Proiektu honetan, lurralde osoa hartuko duen bidegorri-sare bat eraikitzea da asmoa eta hauek dira haren helburuak: iraunkortasuna bermatuko duen mugikortasuna sustatzea, kutsadura eta ingurumenarekiko inpaktuak txikitzea eta klima-aldaketa arintzeko neurriak hartzea. Horiez gain, nahitaez egin beharreko mugikortasuneko joan-etorrietan autoa gutxiago erabiltzea ere lortu nahi da; lanera edo ikastetxeetara joateko edo izapideak egiteko, alegia.

Gipuzkoako Bidegorrien Oinarrizko Sarea Gipuzkoan motorrik gabeko hiriarteko mugikortasuna (txirrindulariak eta oinezkoak) garatzeko azpiegituren sarea da. Helburu nagusia ohiko joan-etorrietarako, eta aisialdirako edo turismorako bizikleta erabiltzen duten txirrindulariei eta oinezkoei gainerako ibilgailuekin aldi berean eta haiengandik bereizita ibiltzeko aukerak ematea da.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/adjuntos/europa-enero-2013.pdf



KOHESIO-POLITIKA

- > Aldaketarako agenda: Europako Batzordeak “blending” plataforma jarri du abian, kanpo-lankidetzaren alorrean funtsen konbinazioa errazteko

Europar Batasunak plataforma berria jarri du abian, kanpo-lankidetzaren alorrean funtsak konbinatzeko (“blending” ingelesez) formulen erabilerarako gomendioak eta gidak eskaintzeko.

Europar Batasunak ekimen horrekin Europako kanpo-laguntzaren inpaktua areagotu nahi du, jatorri publiko nahiz pribatuko funts osagarriak mobilizatuta. Azken xedea, hortaz, eskuragarri dauden funtsak konbinatuta eskainitako laguntzaren eraginkortasuna hobetzea da.

“Blending” edo funts konbinaketaren bidez, Europar Batasuneko diru-laguntzak izaera publiko edo pribatuko beste baliabide batzuekin batzen dira, esaterako, maileguekin edo funts propioen inbertsioarekin. Hori guztia diru-laguntzetatik ez datorren finantziazio osagarria areagotzeko xedearekin.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/europeaid/news/2012-12-12-platform-blending-funds_en.htm

- > Kide diren herrialdeetako zorra gero eta handiagoa izateak 2030erako finkatutako helburuak arriskuan jartzen dituela iragarri du Batzordeak

Kide diren herrialdeetako kontuen iraunkortasuna aztertzen duen Europako Batzordearen txostenak aurrez ikusten duenez, Europar Batasuneko herrialdeen erdiaren zorra 2014an BPGd-aren % 60ko atalasearen gainetik kokatuko da. Hain zuzen ere, txosten horren arabera, zorrik handiena izango duten herrialdeak Belgika, Espainia, Italia, Zipre eta Erresuma Batua izango dira; herrialde horietan zorrak % 30 baino gehiago gaudituko du erreferentziatzko atalase hori.

Txostenaren arabera, kide diren herrialdeetako zorra egungo krisi finantzario, ekonomiko eta fiskalaren eta biztanleriaren pixkanakako zahartzearen ondorioz areagotu da.

Europako Batzordeko adituen arabera, zorraren iraunkortasuna zorra etorkizunean finantzatzeko gaitasuna da. Horren arabera, Batzordeak kalkulatu duenez, Batasuneko zorra erreferentziatzko maila iraunkorrera gerturatu dadin (BPGd-aren % 60 inguru 2030ean), ezinbestekoa da herrialdeek egiturazko saldo fiskala urtean BPGd-aren % 0,5 gutxienez hobetzea. Horretarako, pentsio-sistemen funtsezko aldaketa egitea eta zorra gehiago kontrolatzea proposatzen du.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/publications/european_economy/2012/pdf/ee-2012-8_en.pdf



> Kide diren herrialdeek finantza-sektoreari 2011n emandako estatu mailako laguntzak 714.700 milioi eurokoak dira, Europako BPGd-aren % 5,7koak

Estatu mailako laguntzen Europako Batzordeko adierazleen azken koadroak aditzera ematen du krisiarekin zerikusirik ez duten estatu mailako laguntzak guztira 64.300 milioi eurokoak izan zirela 2011. urtean, hau da, Europako BPGd-aren % 0,5ekoak.

Industriari eta zerbitzuei emandako laguntzak guztizkoaren % 83koak izan ziren eta nekazaritzara bideratutakoak, berriz, % 13,5ekoak. Arrantzari laguntzen % 0,2 eman zitzaion eta garraioari, aldiz, % 3,3.

Krisiarekin lotutako laguntzei dagokienez, 2011n finantza-sektorerako erabilitako laguntzen guztizkoa – birkapitalizazioa eta aktibo toxikoen erreskatea– 714.700 milioi eurokoa izan da, EBko BPGd-aren % 5,7koa, alegia.

Ordaindu gabeko bermeak 521.800 milioi eurokoak izan dira eta berriak, berriz, 110.900 milioi eurokoak. Likideziako esku-hartzeak 43.700 milioi eurokoak izan dira eta 2011n eskainitako likidezia 6.500 milioi eurokoa izan zen. Birkapitalizazioa 31.700 milioi eurokoa izan da guztira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/competition/state_aid/studies_reports/2012_autumn_es.pdf



> Inbertsioen Europako Bankuak 10.000 milioi eurotan areagotu du kapitala, susperraldi ekonomikoa finantzatzeko

Kide diren herrialdeetarako Europar Batasuneko epe luzerako kreditu-erakundea den Inbertsioen Europako Bankuko kapitala 10.000 milioi euro gehiagorekin areagotzea erabaki dute kide diren herrialdeek.

Kide den herrialde bakoitzak erakundearen dituen akzioen arabera egin beharko du Europako Bankuaren kapital-zabalkuntza. Ekintza hori 2012. urtearen erdialdera onartutako hazkunde-planeari jasota dago, eta Europako ekonomia berriro aktibatzea du helburu.

Hori horrela, Inbertsioen Europako Bankuaren kapital-zabalkuntzari esker, datozen hiru urteetan Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako proiektuetara bideratutako finantziazioaren zenbateko totala 60.000 milioi eurotan areagotu da guztira. Finantziazio osagarria lehentasunezko lau sektoretan oinarrituko da, eta berrikuntzara, gaitasunetara, ETE-etara, energia garbira eta azpiegituren modernizaziora bideratuko da.

Informazio gehiago:

<http://www.eib.org/about/press/2013/2013-002-eib-capital-increase-approved-by-all-27-eu-member-states.htm>



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2012ko Abendua

EUROPA 2020 ESTRATEGIA

- > **Kualifikazio eta enplegu berrien Europako agenda: prestakuntza gutxien duten profesionalen kolektiboari eragiten dio gehien enplegu-faltak**

Batzordeak "Kualifikazio eta enplegu berrien agenda" ekimenaren harira egindako enpleguaren eskuragarritasunari buruzko European Vacancy Monitor txostenak berretsi egin du kide diren herrialdeetan profesionalen eskaeraren modu orokorrean murriztu izana.

Joera hori orokorra den arren, profesional kualifikatuenean errealitatea bestelakoa da; kolektibo horren eskaerak % 5 egin du gora azken urteetan profesionalen kasuan, eta % 2, teknikarien eta elkartutako profesionalen kasuan.

Kualifikazio profesionalaren mailarekin batera, Batzordearen txostenak erakusten du generoen arteko zulo handia eta herrialde batetik besterako aldeak mantentzen direla.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/BlobServlet?docId=9609&langId=en>

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=738&langId=en&pubId=7267&type=2&furtherPubs=yes>

- > **Destination Europe ekimenak berrikuntzarako eta ikerketarako erakargarri gisa aurkezten du Europar Batasuna**

Destination Europe Europako Batzordearen eta kide diren herrialdeen arteko ekimena da eta horrekin Europar Batasunak ikerketaren eta transferentzia teknologikoaren alorrean duen potentzialtasuna ezagutarazi nahi dute.

Mundu guztiko ikertzaileek Europan topa ditzaketen aukera profesionalak ezagutzera ematea eta Europar Batasuna berrikuntza eta ikerketaren arloko talentuentzat erakargarri zergatik den azaltzea da helburua.

Hain zuzen ere, ekimenaren testuinguruan hainbat herrialdeetan (Europan eta Europatik kanpo) ekitaldi multzo zabala antolatzea aurrez ikusi dute, Europar Batasuneko ikerketa eta berrikuntza alor erakargarrienak zein diren aditzera emateko. Antolatutako ekitaldietan herrialde bakoitzak garapen profesionalerako ekar ditzakeen bereizgarriak azpimarratuko dituzte; baita horietan ikerketa-proiektuak finantzatzeko iturriak topatzeko aukerak ere.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/research/iscp/index.cfm?pg=destinationEurope>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

- > 2012an Europan izandako gertakari sozialen eta enpleguarekin lotutako gertakarien berrikusketa

Europako Batzordearen Enpleguko Zuzendaritza Nagusiaren urteko argitalpena. 2012ko gertakari nagusiak jasotzen dira, egungo Europar Batasuneko errealitate soziala eta enpleguaren egoera aztertzeke eta ulertzeke.

Azpimarratu beharreko alderdien artean, polarizazio soziala eta kide diren herrialdeen arteko gero eta desadostasun handiagoak nabarmentzen ditu txostenak; horrek Europa 2020 Estrategiako helburuak lortzeke gero eta zailtasun handiagoak ekartzen ditu.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/BlobServlet?docId=9687&langId=en>

- > The 2012 Predict Report: an Analysis of ICT R&D in the European Union and Beyond

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) sektorea Europar Batasuneko ekonomian ikerketa-sektore trinkoenetakoa dela erakusten duen txostena.

Bertan argitaratutako emaitzen arabera, 2009an Europako IKTen I+G sektoreko intentsitatea Batasuneko gainerako jarduera-sektore guztien batez bestekoa baino lau bider handiagoa izan zen (% 5,3koa % 1,2rekin alderatuta), Europako Barne Produktu Gordinaren % 4koa, alegia. Eta horrek, era berean, 470.000 milioi euroko balio erantsia ekarri zuen eta 6,1 milioi enplegu baino gehiago.

Informazio gehiago:

<http://is.jrc.ec.europa.eu/pages/ISG/documents/OnlineversionFINALPredict2012withnumbersv2.pdf>



> Europako gaien glosario terminologikoa (Eurobask)

Eurobaskek, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak, Europari buruzko glosario terminologikoa argitaratu du web atarian.

Glosarioak 300 termino inguru biltzen ditu eta kontsultak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez egiteko aukera eskaintzen du. Horrez gain, Europar Batasunaren eraikuntzarekin zerikusia duten jardueri, erakundeei eta Europar Batasuneko jardueri buruzko termino zehatzak jasotzeko aukera ematen du.

Informazio gehiago:

<http://www.eurobask.org/GlosarioPublicWeb/inicio.do?idioma=eu>